

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Pedro Sarratea Oieregi*

*Baztan,  
Nafarroa  
(1945)*

Aurkibidea



## Biografia



Guraso biak Almandozekoak zituen, Mendiola auzokoak. Eltxonea baserrian bizi ziren. Ardiak eta behiak zituzten eta gazta egiten zuten, saltzeko. Hamar senidetan zortzigarrena zen Pedro. 14 urtera arte eskolan ibili zen, baina gutxi joaten ziren, baserrian lana izaten zutelako. Bere anaia zaharragoak Ameriketara joan ziren artzain eta bide bera jarraitu zuen berak ere: 1964an Nevadara joan zen, Gardnervillera. Lau urte egin zituen artzain Jean Zubibururentzat Carson Valleyn eta urtebete Manuel Brenduarentzat, Fresno (California). Gero, ardotegi batean aritu zen Maderan eta baita mercurio-mina batean ere, Fresnotik hurbil. 1971n Carson Cityra bueltatu zen (Nevada), esnetegi batean lana egitera. Eraikuntzan aritu zen gero, Eugenio anairekin, Renon, hiru urtean. Katie Neddenviepp amerikarrarekin ezkondu zen, Gardnervillen, eta bi alaba izan zituzten. 1979an lorezaintza-negozia ipini zuen eta lan hura eskola bat garbitzearekin batera ere egin zuen, aldi batez. Beste hiru anaia ere elkarrizketatu genituen, Renon eta Gardnervillen.

## Zintak

### BAZ-035

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-30
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com